

Ulibarri proiektua: Hizkuntza Normalkuntza Proiektua

Euskal Herrian oro har, eta are gehiago gure kasuan, ingurune soziolinguistikoak ez du laguntzen euskararen normalizazioa lortzen. Horretarako, ordea, eskola tresna garrantzitsua da. Honela, ikastolan euskara ardatz izatea da gure nahia, euskara komunikazio eta kultura hizkuntza nagusia izatea. Era honetan gure ikasleen kultur erreferenteetan euskarazko input kulturalak txertatzen lan sakona egin behar da. Zentzu honetan bideratzen ditugu proiektuko helburu eta jarduerak.

Proiektu honen helburuak dira:

- Euskararen eta kulturaren ezagutza etengabe hobetzea eta, ziklo bakoitzari dagokion mailan, ezagutza bermatzea.
- Euskararen erabilera indartzea ezagutza hori bermatzeko.
- Motibazioa lantzea aurreko bi helburuak lortzea errazte aldera.

Ulibarri proiektuko jarduerak esparru jakinetan antolatzen dira eta horien ezaugarrien arabera diseinatzen dira jarduerak:

- Eremu instituzionala: non zehazten diren euskararen normalkuntza sustatzeko erabakiak eta ikastetxearen harremanetarako hizkuntza irizpideak.
- Eskolako estamentuak: ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak. Estamentu bakoitzari helburu eta jarduera berezituak egokituko zaizkio, ikasleei emanez zentralitatea.
- Gelaz kanpoko jarduerak: euskararen presentzia ikastetxetik kanpo ezagutzea ahalbidetzen du eta kanpoko eragileekin jarduerak antolatzea ikastetxe barruan nahiz ikastetxetik kanpo.

Ohikoa izaten da euskararen ezagupena eta presentzia indartu beharra adieraztea. Hori dela eta HNP-ko planetan euskararen eta euskal kulturaren transmisioa indartzeko estrategiak lantzea proposatzen ditugu:

- Euskal Herriko ohiko jaiak ospatzea ikastolan; eta gainerako jaietan ere euskal kulturaren ezaugarri propioak txertatzea.

- Euskal kulturaren adierazpen kulturalak ezagutaraztea: dantza, bertsolaritza, musika,...
- Euskal idazleen ezagutza indartzea eta honekin batera euskarazko irakurketari lehentasuna ematea.
- Euskal komunikabideak erreferentetzat hartzea ikaskuntza prozesuetan.
- Geletan ez ezik familietan ere eragitea.

Proyecto Ulibarri: Proyecto de Normalización Lingüística

En Euskal Herria en general, y más aún en nuestro caso, el entorno sociolingüístico no ayuda a conseguir la normalización del euskara, por esto la ikastola es un instrumento importante. Así, nuestro deseo es que en la ikastola el euskara sea el eje, que el euskara sea la lengua principal de comunicación y cultura. De este modo, es necesario realizar un exhaustivo trabajo en la incorporación de inputs culturales en euskara en los referentes culturales de nuestro alumnado. En este sentido orientamos los objetivos y actividades del proyecto.

Los objetivos de este proyecto son:

- Mejorar continuamente el conocimiento del euskara y de la cultura vasca, y garantizar el nivel de conocimiento que corresponde en cada ciclo.
- Fortalecer el uso del euskara para garantizar ese conocimiento.
- Trabajar la motivación para facilitar la consecución de los dos objetivos anteriores.

Las actividades del proyecto Ulibarri se organizan en ámbitos concretos y se diseñan en función de sus características:

- Ámbito institucional: en el que se concretan las decisiones para promover la normalización del euskara y se establecen los criterios lingüísticos para las relaciones de la ikastola.

- Estamentos de la ikastola: alumnado, profesorado, personal no docente y padres-madres o tutores. A cada estamento se les asignan objetivos y actividades adecuadas, siendo el alumnado el centro de todo.
- Actividades fuera del aula: permite conocer la presencia del euskara fuera del centro y organizar actividades de motivación con agentes externos, dentro y fuera del centro.

Normalmente, se señala la necesidad de reforzar el conocimiento y la presencia del euskara. Por ello, en los Planes de Normalización Lingüística se propone trabajar estrategias para reforzar la transmisión del euskara y la cultura vasca:

- Celebrar las fiestas típicas de Euskal Herria en la ikastola; y en el resto de las fiestas incorporar los rasgos propios de la cultura vasca.
- Dar a conocer las manifestaciones culturales de la cultura vasca: danza, bertsolarismo, música, ...
- Reforzar el conocimiento de los escritores-as vascos-as y dar prioridad a la lectura en euskara.
- Considerar los medios de comunicación vascos como referentes en los procesos de aprendizaje.
- Incidir no sólo en las aulas sino también en las familias.